

**2004KO MAIATZAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Laua.

**HILABETEA:** Maiatza

**URTEA:** Bi mila eta laua.

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:**

- Pello Garaialde Goikoetxea
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Imanol Aranburu Gutierrez
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Olano Arrese
- Malu Valles Fernandez
- Aitor Aldasoro Iturbe
- Ana Asla Egialde
- Jon Kortaberria Lasa
- Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga
- Jose Antonio Sanchez Gutierrez
- María Pilar Vispo Chamosa
- Julio Herreros Serna
- Iñaki Saldaña Herrero

**ETORRI GABEAK:** Alfonso Segade González  
Gonzalo Zaldo eta Arana

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

## **1.- AURREKO AKTA.**

2004ko apirilaren 1eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSOE/PSE-EE): “Como desgraciadamente y por las razones que sean no vienen muchos ciudadanos a los Plenos, si me gustaría hacer una propuesta porque la información que llega a los beasaindarras, les llega a través del portavoz oficial del PNV, j u a n t x o u r d a c i, Juantxo Urdaci, que aunque está aquí a veces, no parece que se entera de lo que aquí se habla y se aprueba. El PSE-EE/PSOE, Partido Socialista de Euskadi, Euskadiko Ezkerra, Partido Socialista Obrero Español, votó a favor de la propuesta del partido popular respecto al tren de alta velocidad y en consecuencia no votó en contra. A efectos de que Juantxo Urdaci, al menos pase la información correctamente, propongo a la Secretaría en este caso, que en cuanto esté el acta disponible le pase a dicho portavoz oficial para que al menos transmita a los ciudadanos ausentes en este Pleno, las cosas tal y como suceden y no de otra manera porque sino a j u a n t x o u r d a c i, le puede ocurrir igual que al otro compañero urdaci suyo.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Oso ondo Jose Antonio. Bakarrik esan, nik ez dudala ezagutzen EAJko bozeramailea.”

Idazkariak esan du akta onartu arte, ez dela publiko egiten.

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSOE/PSE-EE): “Ulertuko duzue saltsa botatzen ari naizela, arazoa dagoen tokian. Arazoa pribatua da, baina pena da momentu honetan, kazetaria hemen ez egotea. Jendeari gauzak gertatu diren moduan ez bazaizkio adierazten, ondoren, gauza asko gerta litezke. Informazioa eman behar bada, informazio zuzena eman dadila, zeren eta sarritan horrelako gauzak gertatzen dira.”

Imanol Aranburu jaunak (EAJ/PNV-EA): “Nik uste dut, honi buruz hitz egitea, berari garrantzi gehiegi ematea dela, baina anekdota moduan esan, gizarte-ongizateetik azken bolada honetan bi informazio atera direla, bata hitzaldi bati buruz eta gaizki atera zen, eta bestea, gobernuz kanpoko erakundeei buruzko informazioa eta hori ere gaizki atera zen.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Bihar akta hau Web-orrian sartuko da. Oraindik Web-orria gutxik bisitatzen dute, baina hor egongo da.”

Pello Garaialde jaunak (EAJ/PNV-EA): “Edozein kazetari hanka sar dezake, baina nik uste dut nahita behintzat ez duela informazioa gaizki emango. Ironi puntu bat izatea ez dago gaizki, baina gehiegi ere ez, eta kontuan izan behar dugu, gu gaizki jartzen ari garen kazetaria dela Udaltzaren Osoko Bilkurara etortzen den bakarra.”

Une horretan, Joantxo Unanua, Diario Vascoren kazetaria sartu da batzarraldira eta Jose Antonio Sanchez jaunak, berriro errepikatu du hasieran azaldu duen iritzia.

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): “Para que esto no suceda, y ya que financiamos “Goierra Telebista”, podríamos solicitar que retransmitieran los Plenos”

Beste zinegotziek proposamena ez dute bidezkoa ikusi.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, hurrengo puntua eztabaidatzera pasatu da.

**2.- ARAU SUBSIDIARIOAK.** 1. Hirigintza Arearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa eta ordenantzen 41, 55 eta 69. artikuluen aldaketari buruzko irizpideak eta helburuak.

Alkate jaunak, hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du, irizpideak eta helburuak onartzeari eta hasierako onespenerari buruz:

**Gaia: 1. Hirigintza Arearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa eta Ordenantzen 41, 55 eta 69. artikuluen aldaketari buruzko irizpideak eta helburuak onartzea.**

## **AURREKARIAK**

1. Hirigintza Arearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari eta Ordenantzen 41, 55 eta 69. artikuluen aldaketari buruz, hirigintza-batzordeak egindako proposamenaren ondorioz Planeamenduko Erregelamenduaren 125. artikulua dioena betez, aipatu dokumentua jendaurrean jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2003ko azaroaren 18an, 2003ko azaroaren 7an Berrian eta 2003ko azaroaren 10ean Diario Vascon iragarkiak argitaratuz eta alegazioak egiteko 30 eguneko epea emanaz.

Legez ezarritako epean, ez da alegaziorik aurkeztu.

Dena dela, orain dela gutxi, Beasaingo 1. HAko hainbat kontsulta nahiz hirigintza-lizentzia ebazteko garaian gertatutako xehetasunak direla eta, hirigintza-eremu horren arauzko fitxan, orube desberdin eta etxe-sailei buruzko eraikuntza profilak (sekzioak) definitzerakoan duen akatsa errepikatu da.

1995eko martxoaren 15ean, Udalbatza osoak egindako aparteko batzarraldian, besteak beste honako erabakia hartu zuen, alegia, “1. HAko arauzko fitxan M.1.6 sekzioa zuzentzea, S.1.8 eta S.1.15 bitarteko orubeei buruz, biak barne hartuta”.

Zuzenketa horren bidez, aipatutako orubeei (zuzenketa beharrak zirela eta eginbidetuta eta argitaratutako Beasaingo Arau Subsidiarioen Testu Bateratuan, orube horiek S.1.5 eta S.1.12 bitarteko kopuruez izendatu zirenak) ondorengo eraikuntza-profila (B-B sekzioa) esleitu zitzaizen: S+BO+4O+TO, E-E sekzioaren orde. E-E sekzioa grafikoki definitu gabe, hitzez hitz INDARREAN DAGOEN EGITASMO PARTZIALAREN ARABERAKO” sekziotzat definitzen da. Azken hori M.1.6 etxe-sail osoari eta Beasaingo lehengo Egitasmo Orokorraren 63. poligonoaren Egitasmo Partzialari dagokie. Egitasmo horrek aipatutako orubeetarako sendotutako eraikin-baldintza ezartzen zuen, okupazio zein altuerari (lerrokadura eta profilak) dagokienez.

Hala ere, “Testu Bateratuak” (1995-04-25eko Diputatu Kontseiluaren erabakiari doituta) ez zituen kontuan hartu ez lehen aipatutako udal-erabakia ez eta Diputatuen Kontseiluaren erabakia ere (1995-04-25), nahiz eta erabaki horretan azpimarratu 1. HAREN fitxa zuzendu egin behar zela. Horren orde Testu Bateratuak hasieran aipatutako hirigintza-diziplinako arazoak eragindako sekzioan jaso zituen.

Kasu batzuetan, udal-erabakiaren profilari doitutako lizentziak eman dira, eta beste batzuetan aldiz, eginbidetu eta argitaratutako profilen arabera kontsulta-erantzunak eman dira.

Testuaren akatsa zuzendu nahian, eremuko eraikuntza-ahalmenak arautu beharreko sekzioen definizioa, espedientean jaso nahi da.

Horren ondorioz, Planeamendu Erregelamenduaren 125,3 artikulua xedatutakoa betez, Udalbatzari gehiengo absolutuarekin onartu beharreko (ELOLEren 47,3i artikulua), ondorengo proposamena egiten zaio:

**Lehenik.** 1 Hirigintza Arearekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen eta Ordenantzen 41, 55 eta 69. artikuluen aldaketa lantzeko behar diren irizpideak eta helburuak onartzea, jendaurrean jarritako Aurrerakinarekiko ondorengo aldaketekin:

- J.M. Iturriotz, 5ean, gaur egungo etxebizitza kopurua (18) handitzeko ahalmena biko da.
- Arauzko fitxaren 4. eta 6. orri grafikoak aldatu egin dira, 1995eko martxoaren 15eko udalbatzaren erabakian aipatutako irizpideei jarraituz. Horrela, dagoeneko eraikita dauden eraikuntza batzuk erregularizatu eta etorkizuneko sustapen-aukerak argitu egingo dira. Aldaketa horiek honela zehazten dira:

A-A, B-B, C-C eta D-D sekzioak aldatu egin dira. Profila aldatu egin da. Lehendabiziko bi kasuetan, eraikinen altuera eta bigarren soto-oina

aurreikusten delako. C-C eta D-D sekzioetan berriz, altuera berdin mantentzen da, baina bigarren soto-oina aurreikusten da.

Horrela, S.1.5 eta S.1.12 bitarteko orubeei, S.1.8 salbu, ez zaie E-E sekzioa aplikatzen (indarrean dagoen egitasmo partzialaren arabera), baizik eta B-B profila aplikatzen zaie.

- Duela gutxi sortutako arazoak direla eta, Beasaingo Udalak, kalte gehiago ez egitearren, S.1.8 oruberako profil berri bat (F-F sekzioa) aurreikusi behar izan du.
- Onartu egingo da teilatupearen erabilera, aparteko etxebizitza izatea, baina beti ere, bizigarritasun-baldintzak betetzen badira.

**Bigarren.** Erabaki honen berri idazlan-ekipoari ematea, hasierako onespenerako dokumentua presta dezan.”

“Gaia: 1. HA eta Ordenantzen 41, 55 eta 69. artikuluetako Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko hasierako onespena.

## **AURREKARIAK**

Udalbatzari 1. HA eta Ordenantzen 41, 55 eta 69. artikuluetako Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa lantzeko irizpideak eta helburuak onartzeko proposamena egin zaio eta .....egindako bileran onartu dira.

Horren ondorioz eta Planeamendu Erregelamenduaren 125. eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

**Lehenik.** 1. HA eta Ordenantzen 41, 55 eta 69. artikuluetako Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpideak eta helburuak jasotzen dituelako.

**Bigarren.** Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia GAO n eta DV n nahiz Berria egunkarian argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

EB/IUko eta PPko ordezkariak adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros desde el primer momento hemos apoyado las acciones que la Alcaldía ha efectuado en relación al problema que se ha suscitado.”

EAJ/PNV-EA taldeak ere onartu egin du proposamena.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Alkatetza honek eskerrak ematen dizkie talde guztiei, denok bat egin dugulako eta babesa izan dugulako.”

**3.- ESKUALDEKO OSASUN-ZENTROA.** “Beasain Lantzen, S.A.ri” eskualdeko Osasun Zentroaren sustapena enkargatzea.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Eskualdeko Osasun Zentroa Udal honi dagokio eraikitzea. Proiektua onartu zen eta gauzatzeko proposatzen da, “Beasain Lantzen, S.A.ri” sustapena enkargatzea. Horretarako, Beasain Lantzen, S.A.ren estatutuak aldatuko dira, Batzorde Errektoreak hartuko duen erabakian. Lehen ere erabaki hau hartu zen, baina zinegotzi guztiak ez egoteagatik erabakiak ez zuen baliorik izan. Hori gerta ez dadin, hurrengo bileraren deialdia, aldizkari ofizialetan eta egunkarietan argitaratu da. Izan ere, izapide hauek eginez gero, ez da beharrezkoa zinegotzi guztiak bilerara etortzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

EB/IU eta PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSE-EE/PSOE): “Hace varias comisiones de urbanismo ante la propuesta de Alcaldía de que directamente se transmitiera la gestión del proyecto del ambulatorio a “Beasain Lantzen”, nosotros hicimos una serie de indicaciones, una de índole política, que la mantenemos en el sentido de que el PSE-EE/PSOE, entiende que este es un macro proyecto importante para todos los beasaindarras, que están esperándolo con mucha ilusión y que el mismo dadas sus características, debiera ser gestionado directamente por el Ayuntamiento, con todas las actuaciones legales que al efecto están establecidas.

La otra cuestión es de índole legal, en el sentido de que difícilmente puede ser legal que un acuerdo conveniado con Osakidetza, pueda ahora transmitirse a Beasain Lantzen. Por ello se decide que Beasain Lantzen acomode sus estatutos, para que eso pueda ser efectivo. Nosotros a esto no decimos ni que si ni que no, porque los estatutos de una entidad se pueden acomodar. Pero detrás de ello subyace la misma cuestión porque el encomendar la gestión y tramitación directa a un porcentaje muy reducido del conjunto de la acción que hay que acometer, esto es a los garajes, nos sigue

generando dudas sobre lo que pudiera suceder en el momento de la transmisión del cumplimiento del convenio con el Gobierno Vasco.

He leído tres cuartos de hora antes de empezar el Pleno el informe de Secretaría, que parece muy interesante, pero lo que yo propongo es que la propuesta que en estos momentos se hace sea retirada, al objeto de conseguir el mayor consenso posible, porque de lo contrario, nosotros nos veríamos obligados a explicar a los beasaindarras cual es nuestra posición política y las dudas que vemos en el procedimiento, por los elementos contraproducentes que pudiera suscitar cuando finalice la obra. A fecha de hoy no queremos ser corresponsables, porque vemos situaciones oscuras en el conjunto de la gestión, al margen de los aspectos políticos.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Respecto a la actuación del Ayuntamiento, bien a través de “Beasain Lantzen”, o actuando directamente el propio Ayuntamiento, es este Ayuntamiento el que adjudica y el que va a promocionar esas obras, con todos los elementos de transparencia que una obra pública necesita. Por razones de eficacia, creemos conveniente encomendar a “Beasain Lantzen”, pero teniendo en cuenta en todo momento, que somos nosotros los que decidimos. Respecto al tema de Osakidetza, se ha hecho la consulta y no parece que haya ningún problema. El escollo además de la modificación de los Estatutos, estaría en los usos admitidos por las Normas Subsidiarias para los sótanos, pero eso no afecta al hecho de que la gestión la lleve el Ayuntamiento o “Beasain Lantzen”.

Finalmente decir, que todos estuvimos de acuerdo en convocar la próxima Junta de “Beasain Lantzen”, a través de edictos, con independencia de la conformidad o no respecto a la ampliación del objeto social.

Con el procedimiento que se propone se va a lograr eficacia, porque creo que estamos en el límite de tiempo para empezar con la obra. En consecuencia, se propone **encomendar a la sociedad anónima municipal “Beasain Lantzen, S.A.”, la promoción del nuevo centro de salud comarcal y de la planta sótano de garajes**, de acuerdo al informe de Secretaría del 30 de abril de 2004 que seguidamente se transcribe, y condicionado a que la Junta General de de “Beasain Lantzen, S.A.”, que se celebrará el día 27 de mayo de 2004, ratifique al acuerdo del Consejo y en consecuencia apruebe la ampliación del objeto de la Sociedad.

Creo que estamos dando todos los pasos con garantía jurídica suficiente y creo que intervenciones alarmistas en ese sentido están fuera de lugar.”

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSE-EE/PSOE): “Yo no creo que es alarmismo. Es más, lamento que no retireis la propuesta. Discrepamos en lo político. No sé si discrepamos en lo legal, pero si que es cierto que todavía hay dudas, y también coincidimos en el proyecto, pero nuestra opinión es

divergente y tenemos derecho a expresarla al conjunto de los ciudadanos de Beasain. La urgencia de la obra no es mayor que la de hace dos meses. Lo que no queremos es que a la finalización de la obra, se den circunstancias colaterales. Siempre me quedará el remanente político de que yo lo hubiera gestionado de otra manera. No queremos meter miedo a la gente, simplemente queremos decir que esto todavía no ha madurado lo suficiente, aunque no le quede mucho tiempo.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Guk uste dugu, gaia nahiko helduta dagoela eta badela garaia proiektu hori gauzatzeko.”

Pello Garaialde jaunak (EAJ/PNV-EA): “Tal vez se pudieran hacer dos votaciones. Una, para pronunciarse sobre el ambulatorio y la otra sobre la gestión, ya que lo que nos diferencia es la forma de gestión que se propone, porque entiendo que sobre este particular vosotros no vais a cambiar de opinión. Por ello, no tiene ningún sentido aplazar la decisión.”

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSE-EE/PSOE): “Puede suceder que ocurra algo parecido a lo que ha ocurrido con en el segundo punto del orden del día en relación a las Normas Subsidiarias, es decir, que sea preciso modificar algo que anteriormente se había aprobado con errores. En ese tema hemos apoyado las acciones de Alcaldía, pero en lo que ahora se va a someter a votación tenemos nuestras dudas. La gestión va a ser larga, y si en el futuro surge alguna cuestión, nosotros no vamos a ser corresponsables, al margen de que tenemos una posición política distinta. No estamos votando en contra del ambulatorio, sino precisamente de la asignación de la gestión a “Beasain Lantzen”.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PP, EB/IU)

Aurkako botoak: 2 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

**“Beasain Lantzen, S.A.”, udal-sozietate anonimoari eskualdeko Osasun Zentro berriaren egikaritzea eta garaje-sotoen sustapena enkargatzea**, jarraian transkribatzen den 2004ko apirilaren 30eko Idazkaritzako txostenaren arabera eta beti ere, datorren 2004ko maiatzaren 27an egin beharreko Beasain Lantzen, S.A.ren Batzar Orokorrak, Kontseiluaren erabakia berrestea eta horren ondorioz sozietatearen helburua handitzea onartzen baditu.

## **“IDAZKARITZAKO TXOSTENA**

Gaia, “Beasain Lantzen, S.A.ri” Osasun Zentro berriaren egikaritzea eta garaje-sotoen sustapena enkargatzea.

Udalbatza Osoak, 2004ko apirilaren 1eko datarekin, aho batez onartu zuen, 3.584.410,13 €-ko aurrekontua duen Osasun Zentro berriaren egikaritzea eta garaje-sotoen proiektua.

Hirigintza batzordeak, “Beasain Lantzen, S.A.ri” Osasun Zentro berriaren egikaritzea eta garaje-sotoen sustapena enkargatzea proposatu du. Horri buruz esan beharra dago, nahiz eta Administrazio Kontseiluak enpresaren helburua aldatzea onartu, jarraian honela idatzita gelditu dadin:

*“Sozietatearen helburua honako hau da: etxebizitzatarako lurzoria sustatu, ordenatu, urbanizatu, erosi eta saldu. Halaber, babes ofizialeko nahiz prezio tasatua duten etxebizitzak sustatu, proiektatu, eraiki, erosi, saldu edo beste eratan laga eta baita Beasainen eta Beasaingo biztanleriaren onurarako eraikin industrialak, zerbitzuenak eta erabilera publiko eta pribatua izan dezaketen herritarrentzako zuzkidurak ere.”*

Estatutuak aldatzeko eskuduntza, Batzar Orokorrak duela eta quorum-faltagatik orain arte ezinezkoa izan dela, aipatutako aldaketa onartzea.

Garbi dago, beraz, lehenik egin beharreko gauza, “Beasain Lantzen-eko” estatutuak aldatzea dela.

Hori gainditu ondoren, jarraitu beharreko izapidea ondorengoa da:

1.- Sozietatea eratu ondoren, Udalak sozietatearen helburuan aurreikusitako funtzio publikoak enkarga lekizkioke, lizitazio-prozesuan sektore pribatuko beste enpresa batzuekin lehiatu gabe (1978ko irailaren 28ko eta 1984ko maiatzaren 28ko Auzitegi Gorenaren epaiak). Izan ere sozietatea Udalaren entitate instrumentala izanik (hau da berak jarduteko modua), ez litzateke logikoa izango Udalak jarduteko (berak edo entitate instrumentalaren bidez) lizitazio-prozesuan (enkantean edo lehiaketan) parte hartzea.

Hori horrela izanik, entitate instrumentalak bere jarduera, jatorrizko administrazioari egozten badio, logikoa da entitate instrumentalak kontratatzerakoan, ekainaren 16ko 2/2000 Erret Dekretu Legegileak onartutako Administrazio Publikoetako Legean aurreikusitakoa errespetatzea. Izan ere lege horren 6. Xedapen Gehigarriak aurreikusi egiten ditu zerbitzu publikoak ematen ez dituzten enpresak.

Horren ondorioz, “Beasain Lantzen S.A.” merkataritza-enpresa publizitate eta konkurrentzia printzipioei doituko zaie bere kontratuetan (nahikoa

litzateke publizitatea probintziako zirkulaziorik handiena duten egunkarietako batean egitea, aipatutako 6. xedapen gehigarriak ez baitu publizitate ofizialik aipatzen).

Proiektuari dagokion diru-kopurua aurrekontuaren ohiko baliabideen %10 baino handiagoa izanik, Osoko Bilkuran onartu da, eta, beraz, nire ustez, "Beasain Lantzen, S.A."-ri eskualdeko osasun-zentro berriaren eta garajeetarako sotoaren sustapena ere Udaleko Osoko Bilkurari dagokio.

2.- Aurrekontu-esleipena. Udalak aurrekontuan eskualdeko osasun-zentro berriaren kreditua jaso du (VI. kapitulua), ez ordea, garajeak eraikitzeak, salmentatik lortutako diruarekin finantzatzeko baitira.

Osasun Zentroko obren egikaritzapena kontratatu ahal izateko, Udalak "Beasain Lantzen, S.A." sozietateari kapital-transferentzia egingo dio, eta horretarako, kreditu-aldaketarako espediente bat egitea beharrezkoa da, VI. kapituluko kreditu erabilgarria (inbertsioak) VII. kapitulura (kapital-transferentziak) aldatzen duena alegia.

3.- Behin onartu eta merkataritza-enpresari berri eman ondoren eta enpresak onartu ondoren, garbi geldituko da Erakunde hori izango dela obrak kontratatuko dituen eta fakturak bere izenean eta ez Udalaren izenean bidaliko dira.

Alde horretatik aipatu behar da, Udalak Osakidetzarekin hitzarmen bat sinatuta daukala, eta, horren arabera, osasun-zentro berriaren egikaritzapena zati batean finantzatzen duela, obra-ziurtagiriak aurkezterakoan. Bidezkoa da, beraz, Eusko Jaurlaritzari "sustapen-aginduaren" akordioaren berri ematea.

4.- Lurra. Udalak 7.410 m<sup>2</sup>-ko lursaila du, hain zuzen ere, 41. HA eta 36. HA-an kokatutako Bernedo-eneko zelaietan. Osasun-zentro berria, 41. HA-n (S.G.5) dago, eta 7.410 m<sup>2</sup> horietatik, lursailaren 4.808 m<sup>2</sup> 41. HA-n sartzen dira.

Hori dela eta, lehen-lehenik, Udalaren jabetzapeko 7.410 m<sup>2</sup>-ko finkatik 4.808 m<sup>2</sup> bereizi egin behar dira.

Hemen adierazi beharra dago, 41. HAKo hirigintza-fitxan onartutako erabilera, sanitate-ekipamendu arretari dagokiona dela eta beheko oinean eta soto-oinean aurreikusitako erabilera nagusiari lotutako erabilerak baimenduko direla.

Ez da onartzen osasun-zentroari lotuta ez dagoen garaje-erabilera eta horrek esan nahi du eraiki nahi diren 50 garajeak eraikitzeak Arau Subsidiarioak aldatu beharko lirakeela. Arau Subsidiarioen berrikuspenean xehetasun hori erregulariza liteke, baina ez litzateke zuzena izango.

Osasun-zentroa eta garaje horietako sotoko oina (oin nagusian osasun-zentroak duen azalera baino gehiago hartzen duena) eraikitzeko, 2.024,25 m<sup>2</sup> behar dira. Lurzoruaren gainerako azalera, hau da, 2.703,75 m<sup>3</sup>, bide, espaloi eta berdeguneek okupatzen dute.

2.024,25 m<sup>2</sup>-ko azalera osoaren konpututik, udal-arkitektoaren txostenaren arabera, garajeei % 5,5eko partaidetza legokieke, eta, gainontzekoa, berriz, hau da, % 94,5, osasun\_zentroari.

Ez da ahaztu behar obren egikaritzapena "Beasain Lantzen" sozietate publikoaren aldetik kudeaketa zuzeneko sistema dela. Beraz, Udalak Sozietateari bere jabetzapeko lursailean obrak egiten utziko dio, eta obra horiek amaitutakoan, Udalak osasun-zentroa Osakidetzari lagako dio, izenpetutako hitzarmena betez.

Garajeei dagokien % 5,5eko partaidetza, "Beasain Lantzen, S.A.ri" eskualdatuko zaio eta gelditzen den % 94,5arekin Udala geldituko litzateke. Bien artean erkidego bat eratuko litzateke eta hitzarmen moduan honako hau aurreikusiz:

- TOLEDO TALDEAK idatzitako eta 2004ko apirilaren 1ean Udalbatza Osoak onartutako proiektuaren arabera egindako garajeen jabetza, "Beasain Lantzen, S.A.rena izango da.
- TOLEDO TALDEAK idatzitako eta 2004ko apirilaren 1ean Udalbatza Osoak onartutako proiektuaren arabera egindako osasun-zentroaren jabetza Udalarena izango da.

Obrak bukatu ondoren eta obra berriaren aitortpena egiterakoan, zatiketa horizontala egingo da, partaidetza-kuotak zehazteko."

**4.- HERRI-BIDEAK.** Beasaingo herri-bideen azterketa onartzen duen 2003ko abenduaren 4ko Udalbatza Osoaren erabakiari aurkeztutako birjarpen-helegitea ebaztea.

Alkate jaunak, Joan Martin Aldaregia Etxebarria, zerbitzu-batzordeko lehendakariari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

"Rosa M<sup>a</sup> Cañas Urbizu andreak, Jose Ramon Dorronsoro Murgiondo, Antonio Berbel Perez, Joan Antonio, Roberto eta Ana Isabel Berbel Aiestaranen ordezkari legez, 2003ko abenduaren 4ko Udalbatza Osoak, zerbitzu-batzordeak proposatuta eta 2004ko otsailaren 19ko Idazkaritzako txostena kontuan izanda, Beasaingo udalerriko herri-bideei buruz hartutako erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtoa ez onartzea,. Txostenak honela dio:

## “AURREKARIAK

2003ko abenduaren 16ko datarekin, Rosa Maria Cañas Urbizu andreari, 2003ko abenduaren 4ko Udalbatzaren erabakiaren ziurtagiria igortzen zaio, adieraziz Beasaingo udalerriko landa-lur bideen azterlana behin betiko onartu dela eta alde zuzenetik, azterlana egin duen ekipoak emandako txostenaren aurka aurkeztutako alegazioak ebatzi egin direla.

Rosa María Cañas Urbizu andreak 2003ko abenduaren 17an jaso zuen erabakia eta epe zehar, hau da, 2004ko otsailaren 19ko Donostiako Posta-etxekeko data zuen idatziaren bidez birjarpen-helegitea aurkeztu du, ondorengo adieraziz:

- Beasaingo Udala herriko bizilagunen jabetza pribatuko ondasunetan sartzen da, izan ere gero zehaztuko diren anda-bideetako lurrak ez dira publikoak baizik eta pribatuak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Bide Azpiegitura Sailak, Beasaingo udalerrian dauden bideen erregistroa du eta hor ez dira azaltzen alegazioan aipatutako bideak.
- Beasaingo Udalaren inbentarioan ere ez dira azaltzen izaera publikoekin.
- Udalak ez du bide horien jabetza-titularitatea kreditatu. Erabilera irekiak ez du esan nahi udal-titularitatea dutenik.
- Espedientea izapidetzean aurkeztutako, 2003ko uztailaren 17ko alegazioak errepikatu egiten ditu eta horren ondorioz, ez da ados ondorengo bideak inbentarioak sartzearekin:

7. Erref., Agerrezabalgo bidea, 8. Erref. Olazarko bidea, GB-15 Erref., Malparako bidea eta 12. Erref., Gudugarretako bidea.

Agerrezabalgo bideari buruz esaten Euskal Herriko Epaitegi Gorenak 2003ko irailaren 4ko datarekin Epaia eman duela zera esanez, bidea ez dela publikoa.

## OINARRI JURIDIKOAK

**Lehenik.** Udalak I Beasaingo udalerraren anda-bideetan dauden lurren azterlana egin du, udal-eskuduntza dutenak katalogatzeko eta inbentariatzeko asmoarekin. Zentzu horretan, Gipuzkoako errepide eta bideen 17/1994 Foru Arauaren 9. artikulua, ondorengo esaten du: “Gipuzkoako Foru Aldundiak eta **Udalek** beren jabetzako bideen herri-jabaria osatzen duten errepideen, **bideen** eta gainerako ondasun higiezin **inbentarioa eginik izango dute.**”

Katastroko planoek izaera publiko moduan kalifikazioarekin batera, gizaldietan erabilera publikoa edukitzea eta lekuko adierazpenak, baliagarriak izan daitezke, publiko izaera kreditatzeko.

**Bigarren.** Udalak ezin du errekurtsua aurkeztutako bideen jabetza-titularitatea kreditatu, baina ezta errekurtsua aurkeztu duenak ere ez ditu azaltzen jabetza-tituluak, eta horrek, adierazitakoaren aurka, bideen erabilera irekiak, titularitate publikoa adieraz dezake. Hori esaten du, hain zuzen ere, Gipuzkoako errepede eta bideen 17/1994 Foru Arauaren 2. 4 artikulua: **“jendeak erabiltzeko irekita dauden lehorreko komunikabide guztiak herri-jabetzakotzat hartuko dira.”**

**Hirugarren.** Gipuzkoako errepede eta bideen 17/1994 Foru Arauaren Eranskinean bakarrik azaltzen da “Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepede-zerrendaren” 5. artikuluan adierazitako sareetan banatuta. Ez daude zerrendatuta udal herri-bideak, izan ere, horien inbentarioa udalei dagokie.

**Laugarren.** Inbentarioan ez sartzeko bideei buruz aurkeztutako alegazioarekiko berriz, nire ustez Udalak 2004ko abenduaren 4ko udalbatzaren erabakian emandako erantzuna berreskuratu behar du, izan ere errekurtsuan ez da ezer berririk adierazten.

Agerrezabalgo bideari buruz esan, Euskal Herriko Epaitegi Gorenak 2003ko irailaren 4an Epaia emana duela, errekurtsua aurkeztu duenaren eskaera onartuz, baina Epaia hori oraindik ez da irmoa, bere aurka kasazio-errekurtsua aurkez daiteke eta.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute, EB/IUko ordezkariak izan ezik. EB/IUko ordezkariak esan du, abstenitu egingo dela.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB/IU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

**5.- ONDASUNEN INBENTARIOA.** 2003ko abenduaren 31ko datarekin udal-ondasunen inbentarioa eguneratzea.

Alkate jaunak, Jon Olano haziendako batzorde-buruari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

“Hazienda Batzordeak, 2003ko abenduaren 31ko datarekin egindako inbentarioaren zuzenketa onartzea proposatzen dio Udalbatzari:

**UDALA, 2003**

	<b>Erre. Histo. Kos</b>	<b>Erre.Meta.Amo.</b>	<b>Kontable garbia</b>
<b>ONDASUN HIGIEZINAK</b>	<b>26.354.189,05 €</b>	<b>2.371.511,40 €</b>	<b>23.982.677,65 €</b>
ERAIKUNTZAK	7.903.057,96 €	1.962.584,93 €	5.940.473,03 €
LURSAILAK	3.202.054,17 €	- €	3.202.054,17 €
JOLASTOKIAK	3.088.030,81 €	- €	3.088.030,81 €
BIDEAK	11.537.977,59 €	- €	11.537.977,59 €
LANDA-FINKAK	87.481,77 €	- €	87.481,77 €
AZPIEGITURA	535.586,75 €	408.926,47 €	126.660,28 €
<b>ERRENTA-ESKUBIDEAK</b>	<b>182.106,67 €</b>	<b>- €</b>	<b>182.106,67 €</b>
<b>BALORE HIGIKORRAK</b>	<b>703.060,22 €</b>	<b>- €</b>	<b>703.060,22 €</b>
<b>IBILGAILUAK</b>	<b>119.779,97 €</b>	<b>37.157,95 €</b>	<b>82.622,02 €</b>
<b>ALTZARIAK</b>	<b>1.307.889,07 €</b>	<b>843.744,87 €</b>	<b>464.144,20 €</b>
<b>ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHURG.</b>	<b>352.958,27 €</b>	<b>- €</b>	<b>352.958,27 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>29.019.983,25 €</b>	<b>3.252.414,22 €</b>	<b>25.767.569,03 €</b>
ERAIKINAK ERABILPEN LAGAPENEAN	351.828,50 €	- €	351.828,50 €
	<b>29.371.811,75 €</b>	<b>3.252.414,22 €</b>	<b>26.119.397,53 €</b>

### KIROLDEGIA, 2003

	Erre. Histo. Kos.	Erre. Meta. Amo.	Kontable garbia
ERAIKUNTZAK	3.192.224,35 €	911.979,09 €	2.280.245,26 €
ORUBEAK	242.778,84 €		242.778,84 €
BALORE HIGIKORRAK	100,00 €		100,00 €
<b>ONDASUN HIGIEZINAK</b>	<b>3.435.103,19 €</b>	<b>911.979,09 €</b>	<b>2.523.124,10 €</b>
ALTZARIAK	622.031,22 €	366.929,31 €	255.101,91 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.057.134,41 €</b>	<b>1.278.908,40 €</b>	<b>2.778.226,01 €</b>

### MUSIKA-ESKOLA, 2003

	Erre. Histo. Kos.	Erre. Meta. Amo.	Kontable garbia
ALTZARIAK	98.198,27 €	49.798,63 €	48.399,64 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>98.198,27 €</b>	<b>49.798,63 €</b>	<b>48.399,64 €</b>

### EUSKALTEGIA, 2003

	Erre. Histo. Kos.	Erre. Meta. Amo.	Kontable garbia
ALTZARIAK	61.233,68 €	26.502,69 €	34.730,99 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>61.233,68 €</b>	<b>26.502,69 €</b>	<b>34.730,99 €</b>

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): “Me voy a abstener porque nos falta información.”

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

PSE-EE/PSOeko bozeramaileak abstenitu egingo direla esan du.

EAJ/PNV-EAko bozeramailea proposamenarekiko ados azaldu da.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE, EB/IU)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

**6.- ERAIKUNTZA-ZERGAREN HOBARIA.** Eraikuntza-, obra- eta instalazio-zergari buruzko hobaria, babes ofizialeko etxebizitzak egiteagatik “Construcciones Olabari”k eskatuta.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Orain arte Udal honek babes ofizialeko etxebizitzak interes bereziko eraikuntzatzat kontsideratzen zituen eta % 95eko hobaria aplikatzen zien. Iazko ordenantza fiskaletan, Foru Aldundiko arauei jarraituz, prozedura aldatu egin da. Nahiz Udalak ez aitortu babes ofizialeko etxebizitzak interes bereziko eraikuntzak direnik, derrigorrez behartuta gaude % 50eko hobaria ematera. Gainera Udal honek lehengo irizpideekin jarraituz onartua du % 95 bitarteko hobaria ematea, gizarterako interesa duten eraikuntzetarako. 60 etxebizitza egiten hasi dira Mariarats kalean, Murumendi ikastetxearen ondoan eta sustatzaileak eraikuntza-zergarentzat hobaria ematea eskatzen du..

Jon Olano Hazienda-batzordeko lehendakariak proposamenaren berri eman du eta hitz egiteko txanda eman ondoren, Jose Antonio Sanchez jaunak (PSE-EE/PSOE) ondorengo galdetu du: “Si el resultante final es el mismo aplicando una fórmula u otra, mi pregunta es si esto sentaría precedente para futuros casos.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “El año pasado dimos licencias con una bonificación del 95% y esto es lo que queremos mantener. Nuestro criterio es que la construcción de viviendas de protección oficial perciba una bonificación.”

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSE-EE/PSOE): “Por lo tanto es consecuencia de la aplicación de la Norma Foral.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Si. Lo único que antes era la Comisión de Hacienda quien se pronunciaba sobre la declaración de interés social, y ahora es competencia del Pleno.”

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): “Estoy de acuerdo siempre que favorezca la vivienda de VPO y Eudel no lo gestione.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Puedes tener afinidad con el Consejero, pero también estás en Eudel por ser concejal del Ayuntamiento y éste está representado en Eudel. Creo que es un “insulto” del Consejero el dudar del procedimiento de las adjudicaciones de las viviendas de VPO, por parte de otras administraciones públicas tan dignas como la suya. Todas las Administraciones pueden tener errores, incluso el Gobierno Vasco. Yo como representante del Ayuntamiento, tengo que defender mis derechos y mis competencias, y tengo que defender el derecho y la competencia de poder asignar las viviendas de protección oficial públicamente y con transparencia y no voy a permitir que por una Orden me quiten esa competencia.”

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): “Siempre que no se sorteen en los batzokis, o...”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Eso es demagogia fácil. Nosotros hemos tenido la oportunidad de sortear 40 viviendas de protección oficial y aquí no puede decir nadie que lo hemos hecho mal. El Gobierno Vasco, puede dudar, pero el problema es que nos quitan la competencia, y eso yo tengo que defender como Alcalde a toda costa.”

Jose Antonio Sanchez jaunak (PSE-EE/PSOE): “No sólo suscribo las palabras del Alcalde sino que menos mal que en estos últimos años los Ayuntamientos han promocionado vivienda de protección oficial, porque si es por la Consejería japañados estábamos en los pueblos donde se están promocionando cientos y cientos de viviendas!

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): “Gracias a la Ley Maturana, había antes más viviendas de protección oficial.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“GAIA: Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitzeagatik Construcciones Olabarri, S.M.k, Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergan eskatutako % 95eko hobaria.

1.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzeko duen Udal Ordenantzak ondorengo hoberiak jasotzen ditu:

- a) % 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udalonurakoak izendatuta daudenean inguruabar sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal-batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.
- b) % 50eko hobaria, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza berriaren kasuetan.

2.- Martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak 5. artikuluko laugarren idatz-zatian, a) atalean aplikatuta ateratzen den kuotari b) atalean jasotako hobaria aplikatzeko ahalmena ematen dio.

3.- Hazienda-batzordearen iritziz, etxebizitza herritar ororen eskuetan jartzeko bai Eusko Jaurlaritzaren eta baita ere Beasaingo Udalaren lehentasunekotako bat da. Helburu hori lortzeko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren aldeko apustu garbia egin da, gaur egun herritar askok eta batik bat gazteek ezin baitute etxebizitza bat eskuratu beren soldataren kontura. Udalak bere kabuz bultzatu ditu Beasainen bertan 40 BOE bere gizarte-politika aurrera eramateko eta ustez premiazko gizarte-behar bati erantzuteko.

Bestalde, azken urte hauetan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga % 95ean hobaritua izan da BOE kasuan, etxebizitza horiek Eusko Jaurlaritzak, Udalak edo sustatzaile pribatuak egin dituen kontuan hartu gabe.

Hau guztia ikusirik, Hazienda-batzordeak ondorengo akordioa **PROPOSATZEN** dio Udalbatzari:

**Construcciones Olabarri, S.L. enpresari, 37 HAn B-1 Blokean eraiki behar dituen babes ofizialeko etxebizitzengatik, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan % 90eko hobaria ematea.** Hobari hori aplikatuta geratuko den kuotari, legezko % 50eko hobaria aplikatu ondoren Mariarats kalean babes ofizialeko 60 etxebizitzek guztira %95 eko hobaria izango baitute.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**7.- BEKAK.** Lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak esleitzea.

Alkate jaunak, Imanol Aranburu jaunari, gizarte-ongizateko batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman du:

**“Gaia:** Garatze-bidean dauden herrialdeetan lankidetzan arituko diren gazteentzako

laguntzak ematea.

Udalbatzarentzat.

Programa honetan parte hartzeko eskaera ondorengo gazteek aurkeztu dute:

<b><u>GAZTEAK</u></b>	<b><u>NA</u></b>	<b>JAIOTZE DATA</b>
<b>AINHOA CANO GARMENDIA</b>	72447964-B	1975-04-17
<b>IRANTZU CANO GARMENDIA</b>	72447966-J	1979-07-02
<b>JON ARMENDARIZ ROMAN</b>	72499435-P	<b>1984-12-09</b>
<b>ITZIAR ZUBIAURRE BENGOETXEA</b>	72495561-K	1984-07-10
<b>NAIARA RODRIGUEZ LARIZ</b>	72459615-R	1985-11-13
<b>IDOIA ZABALEGI HERNAIZ</b>	72501252-P	1985-09-06
<b>ALEXANDER GUERRA ARANBURU</b>	72490549-T	1985-08-28
<b>JOKIN OIARZABAL MUNDUATE</b>	44163539-C	1985-11-03
<b>XABIER ALUSTIZA FERNANDEZ</b>	72461645-F	<b>1985-08-23</b>
<b>MIREN ZUFIAURRE ASTIGARRAGA</b>	34089300-B	1980-02-07
<b>JOKIN APALATEGI ARIZTIMUÑO</b>	44332658-C	1985-08-01
<b>AMAIA ITURRI URKIA</b>	72503312-K	1985-11-26

Eskaerak aztertu ondoren, Gizarte Ongizate batzordeak jarraian aipatzen dena proposatzen du:

**GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIETAN LANKIDETZAN ARITUKO DIREN GAZTEEN PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTENAK:**

### **GAZTEAK**

- **AINHOA CANO GARMENDIA**
- **IRANTZU CANO GARMENDIA**
- **JON ARMENDARIZ ROMAN**
- **ITZIAR ZUBIAURRE BENGOETXEA**
- **NAIARA RODRIGUEZ LARIZ**
- **IDOIA ZABALEGI HERNAIZ**

**ORDEZKOAK:**

### **GAZTEAK**

1. **ALEXANDER GUERRA ARANBURU**
2. **JOKIN OIARZABAL MUNDUATE**
3. **XABIER ALUSTIZA FERNANDEZ**
4. **MIREN ZUFIAURRE ASTIGARRAGA**
1. **JOKIN APALATEGI ARIZTIMUÑO**
2. **AMAIA ITURRI URKIA**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko beren adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.** 2004ko martxoaren 30etik 2004ko apirilaren 29ra emandako ebazpenak.

2004ko martxoaren 30etik 2004ko apirilaren 29ra emandako Alkatezaren ebazpenen berri eman da.

### **9.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

#### HERRIKO LOINATZ JAIK ETA HAUTESKUNDEAK

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Dentro de dos semanas daremos comienzo a las “Loinatz jaiak” y el 28 de mayo se inicia la campaña electoral. Desde servicios nos aconsejan que la colocación de los soportes para colocación de propaganda en la zona centro se posponga hasta pasadas las fiestas. En los demás lugares si que se colocarán.”

#### MOZIOAK

Julio Herreros jaunak (PP): “Quiero agradecer al portavoz de EB/IU que no haya presentado ninguna moción.”

Iñaki Saldaña jaunak (EB/IU): “Ahora se me antoja una, a ver si podemos echar al PP del Ayuntamiento.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera gaueko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.